

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Ezpeletik Espeletia

XVIII. MENDE AMAIAN Hego Ameriketako iparralde osoa bere menpe zuen Espainiako erregearen ordezkotza Sevillan jaiotako (1739) eta Iruñean hildako (1823) Jose Manuel Ignacio Timoteo de Ezpeleta y Galdeanok betetzen zuen. Ederki bete ere Boliviako Andeatoko Calisaya mendian *Cinchona calisaya* kino arbola aurkitu zutenean. 1792an hedatu zuten haren berri.

XX. mendean, 1939an, Errepublika garai sutuan Madrilgo Baratze Botanikoaren zuzendari izan zen Josep Cuatrecasas i Arumí (1903-1996). Botanikari handien artean handienetako bat, kataluniarra eta mundu osoan ospetsua. Gerraren panorama ikusita, Prado Museoko artelanekin batera Botanikoko bildumetan jasotako landare lagin garrantzitsuenen kutsak salbatu zituen. Eta Franco diktadorea madarikatu eta hark agintzen zuen artean ez zuela sekula gehiago

Espainian lan egingo zin eginez alde egin zuen. Unibertsitate entzutetsuenek, zeinek baino zeinek, eskaintza politak eginagatik hark hara! Kolonbiara joatea erabaki zuen. Lehendik bertan izana zen eta hango Ande mendi izugarrietako landaredia gustatu, nonbait. Eta joan bazen joan zen; laster igarri zion botanikak. Ordura arte ezezagunak ziren mila landare espezetik gora deskribatu eta jaso zituen. Denen artean, ordea, bi landare multzo kuttun. Txokolata ematen duen landarearen *Theobroma* generoa eta *Espeletiinae* familia. Azken horretakoa da beraren omenez izendatutako *Espeletia cuatrecasasii* espezia.

XVIII. mendeko erregeurde zen Ezpeleta Konde haren omenezko izena da *Espeletiinae* familia, eta beste batzuen artean bertan biltzen dira *Espeletia* bezala *Espeletiopsis* eta *Coespeletia* generoak. Andeatoko landare enblematikoenak dira. Hango eremu mortu

zakarrenetan, ia beste inork iraun ezin duen lurretan hantxe bizi dira, muturreko baldintzetan, baita 4.300 metrotik gora ere. Eguzkiak eta haizeek erretzeko arriskuari aurre egiteko hostoak, goi eta behe, iletsuak dira, bilo mehezko ilaun trinko batek estaltzen ditu.

Estatu kolonial faxista baten erregeurdea zena eta estatu faxista berak erbesteratuarazitakoa, bi lagun uztarri berera lotu zituen zorieneko ezusteko bat medio, Ameriketako landare multzo interesgarrienetako batek euskal izena darama, *Espeletiinae*.

Espeletiinae familia basamortu hotzen zalea zela bazekiten bi lagun horiek, Ezpeleta abizenaren jatorria, ezpela (*Buxus sempervirens*), hobekien lurralde hezeenetako lur gozoenetan hazten dela ba ote zekiten?

PARAMO-CC BY SA



Espeletia pycnophylla espezieko aleak, El Angelen (Ekuador).



Datu Pertsonalen Babesa - LOPD

Legedira egokitzeko prozesua
(euskaraz, pertsonalizatua)



943 453 588 · www.sigacus.com

Lore-lan
Lurez S. Coop.

Lorzaintza proiektuak
Mantentze-zerbitzua

Tel. 609 42 45 47 · Faxa: 943 79 49 12 · lorelan@euskalnet.net